

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

130/2021 Foru Agindua, urriaren 21ekoa. Ebazpena, otsailaren 26ko 15/2021 Foru Aginduan aurreikusitako ondore fasearena. Foru Agindu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostuak betetzeko 1/2021 lehiaketarako deia egin zen eta deialdi horren oinarriak onetsi ziren

Ekainaren 4ko 89/2021 Foru Aginduaren bidez, otsailaren 26ko 15/2021 Foru Aginduan aurreikusitako ondore faserako deia egin zen. Azken foru agindu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostuak betetzeko 1/2021 lehiaketarako deia egin zen eta deialdi horren oinarriak onetsi ziren.

15/2021 Foru Aginduaren I. eranskineko laugarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera, Balioespen Batzordea eratu zen, eta haren bederatzigarren oinarrian ezarritakoa betez, Balioespen Batzordeak destinoa behin betiko esleitzeko proposamena aurkeztu dio Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan lanpostuak hornitzeko 1/2021 lehiaketaren ondore fasea, hain zuzen, ekainaren 4ko 89/2021 Foru Aginduaren bidez deitutakoa, eta behin betiko atxikitzea 16.295.053 NAN zenbakia duen funtzionarioa Adingabeen eta Familiaren Arloko HBOko buruaren lanpostuari (kodea:111.001).

Bigarrena. Esleitutako destinoa uko egin ezinek da eta hura esleitu zaionak ezin izango du parterik hartu lanpostuaz jabetu eta hurrengo bi urteetan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostuak hornitzeko dei egiten duen lehiaketetan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 50. artikuluan aurrez ikusitako kasuetan izan ezik. Hori guztia, deialdiaren bederatzigarren oinarriaren 2. puntuan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena. Lanpostua esleitu zaion funtzionarioa 2021eko urriaren 22an jabetuko da lanpostuaz.

Laugarrena. Foru agindu hau onesten den egunean bertan sartuko da indarrean, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundearen bertan; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan — Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua-rekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 21a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ